

SOLIDARITATEAREN ALDEKO ORRI-MARKATZAILEAK



Save the Children



Liburuaren Egun
solidarioaren
X. edizioa

Orri-markatzaile
solidarioakl

*Proposamen
Didaktikoak*



Txosten eta hezkuntza-maila desberdinetarako proposamenek osatzen dute gida didaktiko hau. Sentsibilizazio-lana osatu nahi duten irakasleentzat tresna baliagarria izan nahi du, beste errealitate batzuei buruzko datuak, informazioa eta ezagutza emanez, eta solidaritatea, errespetua, elkartasuna eta ardura bezalako balioetan oinarritutako hezkuntza babesteko.

Zuzendaria:
Marisol Paniagua

Lankidetzaz:
M^a Luisa Ortega del Val

Artea eta maketazioa:
Germán Gullón

Argitaratzailea:
Save the Children España



BIZITZAK SALBATZEN IGAROTAKO

99 URTEK ERAKUTSI DIGUTENA

Save the Children 1919an sortu zen eta, denbora honetan guztian, egoera ahulean eta bizi-baldintza oso zailetan zeuden haurrei arreta emateaz gainera, munduan milaka neska-mutilek jasaten duten desnutrizio-egoerari buruz gizartea sentsibilizatzen ere saiatu gara. Gure helburua haurren bizitzetan aldaketa iraunkorrak eta sakonak lortzea da. Desnutrizioa zer den eta harekin amaitzeko jendeak zer egin dezakeen kontatuz, diru gehiago lortu ahal izan dugu, baina ez nahikoa.

Orain neska-mutil gehiagori eman diezaiekegu arreta eta erreferentziako erakunde bihurtu gara haurren eskubideetan. Solidaritatearen aldeko orri-markatzaileak parte hartzean, bi zentzutan laguntzen duzu lan horretan, hala laguntza materialean, bildutako funtsei esker, nola sentsibilizazioan, eskolaren inguruan babesleak bilatuta.

Eskerrik asko laguntza horrengatik.

GOSEA AFRIKAN

Nazio Batuen Erakundeak gosetea aitortu du Hego Sudango zenbait zonetan eta ohartarazi du Somalia, Nigeria eta Yemen egoera larrian daudela. Egunero larriagotzen da gosea Afrikan. **Euri-eskasia etengabeak, horrek dakartzan lehorteek eta herrialde horietan diren gatazkek** gosez hiltzeko arriskuan utzi dituzte 1,4 milioi haur. Elikadura-krisi honen arrazoiak askotarikoak badira ere, ondorioek bera izaten jarraitzen dute: **haurrek eta familiak bizirauten saiatzen jarraitzen dute, baina desnutrizio-egoeran jarraitzen dute.** Munduak bizkarra eman die haur gosetiei, baina oraindik itxaropena egon daiteke bizkor jarduten badugu euren bizitzak salbatzeko.

5 URTEZ AZPIKO

155 MILLIOI

**neska-mutilek
atzerapena dute
hazkuntzan.**

**DESNUTRIZIO
KRONIKOA DUTE**

Urtero ia **3 milioi haur hiltzen dira desnutrizioagatik**. Baina gainditzen dutenek ez dute bizitza gozo eta arrakastatsua izaten, desnutrizioak kalte konponezinak utz baititzake eta baliteke bere potentzial guztia garatzen ez uztea.

Urtero, 3 milioi haur hiltzen dira munduan desnutrizioa dela-eta (nahikoa kaloria edo elikagai ez kontsumitzeagatik haur bat arriskuan dagoenean deritzo). Haur-heriotza guztien %50 inguru da hori.

- Desnutrizio akutu larria (SAM ere deitu ohi zaio) da guztietan arriskutsuena, hilzorian uzten baititu neska-mutilak. 5 urtetik beherako 19 milioi haurri eragiten die mundu osoan eta 400.000 haur hiltzen ditu urtean.
- 5 urtetik beherako ia 155 milioi haurrek hazkuntza-atzerapenak dituzte, hau da, adin-talde horretako 4 haurretik 1ek.
- Desnutrizio akutu larria duten haurrek elikadura egokia jasotzen duten haurrek baino hiltzeko 9 aldiz aukera gehiago dute.
- Hazkuntza-atzerapenak dituzten 5 urtetik beherako haurren kopurua 2000ko %32,7tik 2009ko %22,9ra gutxitu da. Jaitsiera hori, txikia iruditu arren, 43 milioi haur esan nahi du. Besteak beste, gizarte zibilaren kontzientziazioari eta babesari esker lortuko dira aurrerapen horiek.
- Alabaina, beherakada hori behar baino mantsoagoa da, ez badugu saihesteko ezer egiten, 2030. urtean oraindik 129 milioi haur egongo dira hazkuntza-atzerapenarekin.
- Haur-desnutrizioarekin amaituz gero, neska-mutilen bizitza salbatzeaz gain, %12ra arte hazi daiteke garapen bideko herrialdeen BPG, langileen kopurua, indarra eta gaitasuna handituko bailitzateke, eta horrek mesede egingo lioke mundu osoari.



Haur-desnutrizioa ez da elikagai falta soilik, badira mikroelikagai batzuk ere, eta horien gabeziak haurren garapenari eragiten dio eta osasun-arazo larriak eragiten ditu haurren osasunean.

«Gose ezkutua»

OMEren arabera, mikroelikagai urritasun ohikoenak eta gutxitasun horren ondorioak, hazkuntza-atzerapenaz gainera, hauek dira:

A bitamina.Gaueko itsutasuna (argi gutxirekin ezin ikustea).
Burdina.....Anemia.
IodoaBozioa eta kretinismoa.

Osasunaren Mundu Erakundearen hitzetan, eskola-adinean dauden 254 milioi haurrek dute A bitamina gabezia.

Haurdunaldiaren hasieratik hasi eta haurrak 2 urte betetzen dituen arteko lehen 1.000 egunak oso garrantzitsuak dira burmuinaren eta gorputzaren garapenerako. Une horretan beharrezkoak diren elikagaiak hartzen ez badira, baliteke haurrak mentalki eta fisikoki guztiz ez garatzea, eta gaixotzeko erraztasun handiagoa izango dute.

Gure azterketen arabera, gainditu dutela ematen duenean ere eragiten die desnutrizioak haurrei:

- Asko kostatzen zaie gutxieneko emaitzak lortzea eskolan, eta ondorioz, behar baino lehenago uzten dute.
- Etorkizunean aukera profesional gutxiago izango dituzte, eta soldata okerragoak izango dituzte heldu izaten direnean.
- Emaizta akademiko okerrenek dituen 10 herrialdetatik bederatzi Afrikako Sahel eskualdean daude. Hego Sudan, munduko herrialde berriena, da herrialde okerrena: 3 haurretatik 2 ez doaz eskolara.

Familia asko pobrezia-zirkuluan harrapatuta bizi dira. Desnutrizioak jotako amek desnutrizioak jotako ume-alabak izan ohi dituzte. Komunitate eta herrialde osoek ere sufritzen dute. Izan ere, askoz ere zailagoa baita herrialde bateko baldintza ekonomikoak hobetzeko borrokatzea, herrialdeak jatekorik ia apenas duenean.

Save the Children erakundeak munduko toki pobreenetan, arriskutsuenetan eta urrunekoenetan egiten du lan. Azkar tratatzen ditugu desnutrizioak jotako haurrak, bizitzak salbatzen dituzten tratamendu terapeutikoekin. Gainera, desnutrizioa prebenitzen dugu eta, horrela, haur ahulenak babesten ditugu eta komunitateei pobrezia-zirkulutik ateratzen laguntzen diegu.

NOLA EGITEN DIOGU AURRE HAUR-DESNUTRIZIOARI?

Save the Children erakundeko desnutrizio-programek berehalako kausei:

- Elikagai gutxiegi.
- Ur edangarririk ez.
- Osasun-sistema ahulak.
- Desnutrizioak jotako amak.

Eta epe luzerako kausei ekiten die:

- Pobrezia.
- Gatazkak.
- Estatu hauskorrak.
- Hezkuntza falta.

Gure erantzuna orokorra da eta ez du gaurko janari-platerkada bat soilik eman nahi. Hori dela-eta, hautemate goiztiarra lantzen dugu, komunitateak prebenitzeko eta babesteko, eta eurek bakarrik erantzun ahal izateko egoera zail eta errepikarien aurrean. **Lau ikuspuntutatik egiten dugu lan:**

1. Zuzeneko esku-hartzeak.

- Berehalako osasun- eta nutrizio-konponbideak eskaintzen dizkiegu arriskuan dauden haurrei eta euren familiei.
- Adingabearen elikadura-egoeraren arabera, bizitzak salba ditzaketen esku-hartze erraz eta ekonomiko mota desberdinak daude.
- Elikagai terapeutiko bidezko esku-hartzeak: desnutrizio akutu larria duten haurrentzako tratamendua.
- Oinarrizko elikagaiak aberastea: iodoa eta zinka bezalako bitaminak eta mineralak gehituta.
- Osasun-ohiturak sustatzea: eskuak garbitzea bezalako jarduerak indartuta.

2. Familiak pobreziatik babestea.

- Pobrezia egoeran dauden familia askotan, haurrek desnutrizioa dute ezin dutelako elikagairik erosi. Gure azterketen arabera, egoera horretan dauden familia ugari daude Etiopia eta Kenya bezalako herrialdeetan, eta ezin dute familiak beharrezko elikagaiekin elikatu, ezta soldata osoa janaria erosten gastatuko balute ere.
- Kasu horietan, funtsezkoa da familiei laguntza finantzarioa, elikagaiak edo bizirauteko laguntza ematea eta pobrezia-zirkulua haustea.

3. Segurtasun-sarea sortzea.

- Momentu zailenetan segurtasun-sare bat bezala jarduten duen eta haurrak eta beren familiak pobreziaren efektu okerrenetatik babesten dituen eskudirua banatzeko programak garatu ditugu. Esperientziatik dakigu programa horiek desnutrizio orokorra murrizten laguntzen dutela, arrisku handieneko pertsonen zuzentzen zaizkielako: ama haurdunei, edoskitzen ari direnei eta bi urtetik beherako haurrei. Garapeneko une garrantzitsuenean (lehen 1.000 egunak) beharrezko elikagaiak jasotzen dituztela ziurtatzen gara.


4. Elikadura-sistema hobetzea.

- Elikadura-sistema hobetzea ez da ekoizpena handitzea soilik. Haurren dieta hobetu behar dugu, eta hori oro har, eskala txikiko nekazaritzarekin eta emakumeekin hasten da.
- Badakigu Afrikan desnutrizioa duten 4 haurretatik 3 ustiakuntza txikietan bizi direla eta nekazaritza-lanen %43 emakumeek egiten dutela. Hori dela-eta, talde horietan jartzen dugu gure ekonomia- eta trebakuntza-laguntza guztia, elikagai nutritiboagoak ekoizteko gai izan daitezen.



5 URTEZ AZPIKO
50 MILLIOI
NESKA-MUTILEK
pisua txikiegia dute
duten altuerarako.

**MUTURREKO
DESNUTRIZIOA DUTE**




HEGO SUDAN: HERRIALDE GAZTEENA ETA AHULENA

Sudango herrialdea, Afrikako beste asko bezala, baliabide natural ugariak eskualdea da, baina etengabeko gatazka armatuak dituen mendeetan zehar. 2011ko ekainaren 6an Ipar Sudanen eta Hego Sudanen arteko gatazketako bat piztu zen, eta azken horrek bere independentzia aldarrikatu zuen, populazioaren %98ak iparraldetik bereiztea erabaki zuen erreferendum bat egin ostean. Alabaina, horrek ez zuen konpondu gatazka eta liskarrek jarraitu egin zuten, nahiz eta uztailaren 14an Hego Sudan munduko herrialde berriena bihurtu. Oraindik gai askok konpondu gabe jarraitzen dute, adibidez, petrolio-baliabideak. Izan ere, Sudango petrolioaren %80 hegoaldetik datorrela estimatzen baita.

Herrialdearen historiako lehen urteetan, hainbat talde etnikoren arteko gatazka armatuak ere izan dira baliabide ekonomikoaren falta dela-eta, eta ondorioak suntsitzaileak izan dira populazioarentzat. Populazioa 9 milioi baino zertxobait gehiagoko dela estimatzen da, nahiz eta 2015ean 11 milioi zituela estimatzen zen, hau da, gerraren ondorioz, **2 milioi lagunek baino gehiagok bizitza galdu dute. 4 milioi desplazatu eta errefuxiatu** daude Uganda, Kenya, Etiopia edo Sudan bezalako ondoko herrialdeetan.

Hego Sudanek eskolatik kanpo dauden haurren munduko proportzio altuenak ditu, Siriaren atzetik. **800 eskola baino gehiago suntsitu dira eta 600.000 haurrek baino gehiagok laguntza humanitarioa behar dute bizirauteko.**



Egoera horri guztiari gatazkek eta Hego Sudango esportazio nagusia den petrolioaren prezioen jaitsierak eragindako krisi ekonomikoa gehitzen zaio, eta beraz, inflazioa nabarmen igo da. Egoera horrek eragina izan du prezioetan eta soldatetan, adibidez, segurtasun-guardia batek irakasle batek baino gehiago kobratzen du eta, ondorioz, irakasle askok eskola utzi eta beste diru-sarrera batzuk bilatzen dituzte familiak mantentzeko.

Desnutrizioa ere nabarmen igo da: desnutrizioak 250.000 neska-mutil baino gehiagori eragiten diela estimatzen da, 2016an 19.000 kolera-kasu eman ziren herrialdean eta 15.000 adingabe familietatik banatu dira indarkeria-arriskuagatik, behartutako ezkontzengatik eta miliziek errekrutatu dituztelako.

Munduko herrialde gazteena herrialde ahulena ere bada, giza-garapenaren indizean (GGI) 188 herrialdetatik 181.a da. Herrialdeko haurrei dagokionez, Hego Sudango haurtzaroa oso zaila dela esan dezakegu.

SAVE THE CHILDREN ERAJUNDEAREN ERANTZUNA HEGO SUDANEN

Gure helburua egoera zailetan bizi diren haurrengana iristea da, beren bizitzetako aldaketak iraunkorragoak izan daitezen eta etorkizunean aukera gehiago izan ditzaten.



Erabateko arreta **larrialdi**-egoeran dauden haurrei, gatazka-eremuetan daudelako edo gatazka horien ondorioz desplazatu mordoa jaso duen guneetan bizi direlako. Arreta hori ematen da: **elikagaien, elikagaiak ez diren elementuen, eskudiruaren edo proteina bidezko nutrizio-kupoien bidez.**



Familia ahulenen ekonomia aktibatzea, **hazien, lanabesen, ganaduaren edo arrantza-sargaien** bidez, elikagaien eta nutrigaien defizitak murriztuz eta diru-sarrerak areagotuz, berreskuratzen eta erresilientzian laguntzeko. Ahal den guztietan, laguntza horiek tokiko merkatuetan lortzen dira. Horrela, merkatuak berak biziberritzen eta herrialdea hobetzen laguntzen baita.



Hezkuntza, herrialdeko hezkuntza-sistema babestuz **irakasleak trebatuz eta hezkuntza hobe bat bilatuz** Hego Sudanek alfabetizazio-tasa oso baxu horiek gainditu, %30 baino gutxiago, eta haurrek gutxienez lehen hezkuntzako zikloa amaitzeko.



Save the Children erakundeak gazte babesgabeak ere trebatu nahi ditu merkatuan eta autoenplegu-aukeretan oinarritutako trebeziekin. Besteak beste, **finantza-alfabetizazioa eta aurrezteko praktika onak** indartzea **enplegarritasuna indartzeko.**



Osasuna eta elikadura. Save the Children erakundeak %15 murriztu nahi ditu kausa saihegarriengatik bost urtetik beherako haurren heriotzak, hala nola, elgorriak, malariak edo beherakoak eragindakoak. Gainera, txikiaren hazkuntza-atzerapena ere murriztu nahi du. Amaren, jaioberrien eta bost urtetik beherako haurren elikadura elikagai terapeutikoekin, mikroelikagaien osagarriekin eta bularreko haurraren elikadura indartuta eta zaintza hori komunitateko egiturekin lotuta, behar gehien dituzten lagunengana iristeko. Amaren elikadura ere zainduta, desnutrizioak jotako ama-seme/alaba zikloa hautsi ahal izateko.

Hego Sudanen bezalako toki ahuletan egindako lanak ikuspegi orokor bat izan behar du: osasuna, elikadura, hezkuntza eta babesa; beti tokiko komunitateen eta gobernuen laguntza izanez, horrela, adingabeen bizitza epe laburrean eta etorkizunean hobetuko dituzten emaitza iraunkorrak eta esanguratsuak izateko.

BADAKIT ZER DEN GERRAK HAURTZAROA LAPURTZEA

David del Campok, Save the Children erakundeko Lankidetza eta Laguntza Humanitarioaren zuzendariak, idatzitako artikulua eta elperiodico.com helbidean argitaratu zena.

419 puntu egin ditu denboraldi honetan Loul Deng-ek, Los Angeles Laker saskibaloi-taldeko hegala. Loul Deng gaur egungo Hego Sudanen jaio zen. Duela hiru urte kontatu zigun Save the Children erakundeak bere historia: «Badakit zer den gerrak haurtzaroa lapurtzea. Bost urte nituenean eta Sudango gatazka piztu zenean, nire familia eta ni Egiptora ihes egiteko zortea izan zuteneko bat izan ginen. Lau urte geroago, asiloa lortu genuen Erresuma Batuan. Hego Sudanek independentzia lortu zuen eguna, ziurrenik, nire bizitzako egun zoriontsuenetako bat izan zen. Afrikako nazio gazteenari, nire etxeari, baikortasuna eta itxaropena zerizkion. Ni han nengoen, Freedom Square-n, Yuba hiriburuan. Baina herrialdearen hirugarren urteurrenean, geroz eta errotuagoa dagoen gatazkaren errealitateak desesperazio eta beldur bihurtu zituen baikortasuna eta itxaropena. Bagenekien aurretik genuen bidea ez zela erraza izango hamarkadak gerran pasatu ostean, baina ez nuen imajinatu inoiz horrelakoa izango zenik».

Deng-en hitzak dira 2014an. Orain, 2017ko otsailean, gosete egoera aitortu da Hego Sudanen, Unity estatuan. Datozen bi hilabeteetan, **4,9 milioi lagun, herrialdeko populazioaren ia erdia, elikagai-krisi batean murgilduko da**. Muturreko arrisku-egoeran dagoen populazioa %36 igo da. Haurrei dagokienez, **haurren %40k baino gehiagok desnutrizio akutua dute**. Egia esan, igarobide bizkorra da heriotzara. Edozein gaixotasun arin, beheakoa edo elgorria esaterako, desnutrizio akutuekin hilkor bihurtzen da.



Egoera horri etengabe gatazkan dagoen eta prezioak ikaragarri igo diren herrialde baten errealitatea gehitu behar diogu. **Save the Children bezalako erakunde humanitarioak ezin dira iritsi herrialdearen heren batera** eta arroza, olio edo irina bezalako oinarritzko elikagaien prezioak hamar aldiz bidertu dira. Atzo 1,70 euro ordaindu duen kilo bat arroz Madrilgo denda batean. Imajina zaitezke 17 euro ordaindu behar izatea? Horixe ari da gertatzen da Hego Sudanen, urtean pertsona bakoitzaren errenta 658 eurokoa den herrialde batean. Espainiako pertsona bakoitzaren errenta 23.290 eurokoa da. **Sudanen, 35 aldiz errenta baxuagoko herrialde batean, biztanleek 17 aldiz gehiago ordaintzen duten kilo bat arrozarengatik**. Kontakizun horri ekoizpen-sistema hauskorra suntsitu duten muturreko bi lehorten gehitu behar zaizkio.

Herrialdearen zati batean gosetea aitortzea oihu bat da agonia-prozesu baten baitan. Gaur salatzen duguna ez da berria, baina herrialdeko Estatistika Bulego Nazionalaren ohar batek ofizialtasuna ematen dio errealitate gordinari: **100.000 lagun hiltzeko arrisku larrian daudela. Erdiak, haurrak dira.** Egunean 380.000 petrolio-upel ekoizteko gaitasuna duen herrialde batean gertatzen da. Petrolioia da herrialdeko diru-sarreraren %90.

Bizitzak salba daitezke, asko salba ditzakegu. Save the Children erakundeak eta duela denbora askoan bertan lan egiten duten beste erakunde batzuk saiatzen jarraituko dugu. Salatzen jarrai dezakegu, eta hori ere egingo dugu. Orain bai, ez da ezer aldatuko Hego Sudanen bakerik eta egonkortasunik ez dagoen bitartean eta oinpean duten aberastasuna aukera bat izan arte, heriotza-mehatxu bat izan beharrean. Herrialde askotako ekonomiak beren egonkortasunean eta beste batzuen ezegonkortasunean oinarritzen diren bitartean, kontakizun berarekin jarraituko dugu, bizitza batzuk salbatuko dituzten gosetearen aurkako agonia-oihuak izango dira, baina ez dute ezer aldatuko.



Gure lana azaldu eta nazioarteko lankidetzari buruz egiten ditugun galderak erantzuten dituen bideo hau ikustera gonbidatzen zaitugu.



PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

Milioika neska-mutilen aurka egunero gauzatzen den indarkeriak zera hausnarrarazten digu: «Pobreak izatearen errudun dira?» Pobrezia da munduko indarkeria-ekintza krudelena. Desparekotasuna modernitate gisa geureganatu dugun mundu batean bizi gara. Gaur egungo munduan GKEak dira pobreziaren aurkako arreta jasotzeko bitarteko nagusia desagertutako herrialdeen eta ustelkeriaren aurrean, baita solidaritatea eta ondasun komuna gisako balioen atzerakadaren aurrean ere.

Irakurmena ezinbestekoa da prebenitzeko, beharrezko da duintasunaren, eskuzabaltasunaren eta tratu onaren aldeko hausnarketa finkatzeko tresna gisa. Arrazoi ugari dago Liburuaren egun solidarioa ospatzeko, arrazoi ugari dago irakurtzeko:

Mundua ezagutzeko
Geure burua ezagutzeko
Ongi pasatzeko
Amets egiteko
Hunkitzeko
Maitatzeko
Pentsatzeko...

HELBURUAK

- Mundu justuago batean bizitzeko ilusioa, inplikazioa eta emozioa piztea liburuen eta ipuinen bidez.
- Giza duintasunaren aldeko parte-hartzea eta giza eskubideen eta haurren berariazkoen eskubideen defentsaren aldeko esperientziak erraztea.

EDUKIAK

- Ipuina eta liburua
- Giza eskubideak eta haurren eskubide bereziak
- Giza garapena eta garapen jasangarria
- Hego Sudanen egoeraren testuingurua adin desberdinetara egokituta

GAITASUNAK

- Pertzepzioa eta ezagutza
- Entzutea eta ulermena
- Analisia eta hausnarketa
- Ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena eta adierazpen artistikoa
- Sormena
- Talde-lana eta akordioa
- Banako eta talde-erantzukizuna



METODOLOGÍA

- Adinaren arabera literatura-ginkana talde-lana, entzutea, ulermena, pertzepzioa eta ezagutza indartuz.
- Liburuak eta ipuinak konpainia, giza garapen, analisi eta mundua hobetzeko hausnarketa eraikitzaile eta sormenezko euskarri gisa.
- Banako eta talde-inplikazio solidarioa parte-hartzearen eta sormen-adierazpenaren bidez (horma-irudiak, orri-markatzaileak, marrazkiak, literatura-sorkuntza, irakurle-kluba...) munduko haurren duintasunaren eta defentsaren alde.

EBALUAZIOA

Proposamen didaktikoaren amaieran, irakasleei eta ikasleei ebaluazio «ez-formal» bat egin dezaten eskatuko diegu.

- Irakasleek egoki irizten dioten jardueraren emaitzari eta dokumentazioari buruzko idatzizko iritzi didaktikoa emango diote Save the Children-i.
- Ikasleek, «Literatura-ginkanak» amaitzean, hausnartu eta esperientzia azaltzeko nabarmenduko luketen izenburu edo hitz bat (Haur-hezkuntza) adieraziko dute taldeka.

Haurrek eta nerabeek esperientziak bizitzen dituzte kontuen eta liburuen bidez, gaitasunak garatzen dituzte, gauzak ezagutzen dituzte, entzun egiten dute, besteek sentitzen dutena sentitzen dute, izena jartzen diete emozioei eta funtsezko gaiak bizitzen dituzte gizakien arteko elkarbizitzarako. Liburuak eta ipuinek errealitatearekin konektatzera zuzendutako hezkuntza bat ematen digute, indartzeko balioekin, emozioekin eta bizi garen mundua hobetzen saiatzera bultzarazten digute.



Laguntza humanitarioko eta kooperazioko erakundeek pertsonen laguntza behar dute; familiek, estatuak eta gizarte zibilak ekarpen ekonomikoak egitea behar dute, Giza Eskubideak defendatu ahal izateko eta nutrizioari, hezkuntzari eta osasunari buruzko proiektu humanitarioei jarraipena emateko, pobrezia- eta eskasia-egoera bidegabekotasunaren herrialdeetan. Horregatik, irakurmena eta literatura-ginkanak ospatzea hezkuntza-gonbidapen garrantzitsua da Liburuaren egunerako.

«IPUINEK LOTURAK SORTZEN DITUZTE»




PROPOSAMENA


Bost probako ginkana bat egitea gelan. Irakasleak Yuba aurkeztuko du gelan, neska-mutilak egoeran jartzeko. Laguntzak, entzutea, adierazpena, elkartrukea eta parte-hartzea landuko ditu taldeak.

Irakasleak Yuba aurkeztuko du: «Yuba Hego Sudanen, Afrikako herrialde batean, bizi zen asto bat da. Yubak gauza asko garraiatzen ditu bere bizkarrean: ura, elikagaiak eta ipuinak, bere herrialdeko neska-mutilak osasuntsu bizi daitezen...».

- **1. proba.** Yubak lagunak behar ditu ura, elikagaiak eta ipuinak garraiatzen laguntzeko, eta guk aurkitu behar dizkiogu. Bilatu aldizkarietan Yubaren lagunak, eta moztu eta itsatsi horma-irudi batean.
- **2. proba.** Yubari izugarri gustatzen zaio ipuinak entzutea, belarri handiak ditu eta jakin nahi du: zein ipuin kontatuko zenioke? Aukeratu bakoitzak ipuin bat eta irakasleak horma-irudian apuntatuko du.
- **3. proba.** Yubak anekak ditu kolore eta tamaina guztietako ipuinak eramateko. Aukeratu kolore bat eta inguratu begizta oso polit batekin Yubari kontatzeko aukeratu duzun ipuina.
- **4. proba.** Yubak eta bere lagunak toki batetik bestera ura, ipuinak eta elikagaiak garraiatzen dituztenean, egun batzuetan eguzkiak gogor jotzen du eta beste egun batzuetan euria egiten du. Proba honetan, euria eta eguzkia margotu behar dira gelako horma-irudian eta orri-markatzaile solidarioetan.
- **5. proba.** Aukeratu irakurtzea gustatzen zaien inguruko bost pertsona eta trukatu eurekin zure orri-markatzaileak.



1



PRESTATU

Aldizkariak, paper jarraitua, guraizeak, kola, koloretako pinturak eta Save the Children-en orri-markatzaile solidarioak.

KONTUAN IZAN

Haurren adinaren arabera, egun batean, bitan edo bostetan antolatuko ditu probak irakasleak. Irakasleak tartetxoak aurkitzen dituenean gelan, haurrek aukeratutako ipuinak kontatzeko denbora antolatuko du.

Nahi izanez gero, ehunezko begiztekin apain daitezke orri-markatzaile solidarioak.

«LIBURUZ ETA HITZEZ BETETAKO MALETAK YUBARENTZAT»



Proposamena

Egin gelan bost probako ginkana bat. Hasieran, irakasleak Yubaren bizitza kontatuko du, haurrek beste errealitate bat ezagut dezaten. Parte-hartzaileak ezagutzero, entzutera, adieraztera, pentsatzera, trukatzera eta kolaboratzera hurbilduko dira.

Irakasleak Yuba aurkeztu eta bere istorioa kontatuko du.

«Yuba Hego Sudanen, Afrikako herrialde batean, bizi zen asto bat da. Beste edozein asto bezalakoa da, baina bere bizitza aldatu egin zen “liburu-asto” bihurtu eta beharrezko gauzak garraiatzen zituen bitartean abenturak bizitzen hasi zenean. Asko gustatzen zitzaion baliagarri izatea, baina joan-etorria egiteko ahalegin handia egin behar zuen, ura, elikagaiak eta ipuinak garraiatu behar zituelako, bere herrialdeko haurrak osasuntsu bizitzeko...».

Irakasleak Hego Sudango argazkiak erakutsiko ditu eta bost kideko taldeak egingo ditu ginkana egiten hasteko:

- **1. proba.** Yuba kezkatuta dago, nahiko nekatuta sentitzen da, bizkarra biguna du eta hankak makaltzen zaizkio. Proba honetan, talde bakoitzak hainbeste jarduera egiten jarraitzeko Yubari indarra emateko zazpi aholku idatziko ditu. Irakasleak aholkuak jaso eta kartoi-mehe batean itsatsiko ditu.
- **2. proba.** «A zer ongi» Yuba suspertu da zuen aholkuekin eta Hego Sudango haurrentzako liburu eta ipuin politez betetako maletak eraman nahi ditu. Proba honetan, partaide bakoitzak Yubari maletan eramateko enkargatuko liokeen liburu edo ipuin polit bat pentsatu eta gogoratuko du, eta ondoren, kartoi-mehe batean idatziko du.
- **3. proba.** Irakasleak paper jarraitua zabalduko du eta talde bakoitzari toki bat emango dio marrazteko. Taldeak Yuba marraztu behar du, Hego Sudango haurrei gomendatutako liburuak daramatzala. Taldekide bakoitzak Hego Sudan gogorarazten dion kolore bat aukeratu du proba honetan.
- **4. proba.** Taldeak irakurtzea gustatzen zaien inguruko pertsonen zerrenda oso luze bat egin behar du eta kide bakoitzak ezagun horien izenak idatziko ditu «irakurle solidarioen» txartel batean.
- **5. proba.** Irakurtzea gustatzen zaien ezagunekin trukatzeko orri-markatzaileak egingo dira. Taldeak orri-markatzaileak apaintzen ditu. Nola? Ipuinetako eta liburuetakoko hitz politikak aukeratuko dituzte, letra handiarekin eta koloretan idatziko dute eta apaingarri ikusgarriak gehituko dituzte, eta ekarpen ekonomikoengatik trukatuko dituzte.


PRESTATU

Hego Sudango argazkiak, kartoi-meheak, boligrafoak, paper jarraitua, koloretako pinturak, «irakurle solidarioak» txartela eta Save the Children-en «orri-markatzaileak».

KONTUAN IZAN:

Gaia aurkezteko, Yubaren eta bere ingurunea aurkezteko eta probak egiteko denbora desberdina izan daiteke taldearen adinaren eta euren ezaugarrien arabera.

Ginkanak iraun bitartean, Hego Sudango argazkiak erakusketa gisa utz daitezke gelan.





«APUNTA ZAITEZ IRAKURLE SOLIDARIO IZATERA»

Proposamena

Egin bost probako ginkana bat. Ginkanaren hasieran, irakasleak «Yuba» hitzak zer esanahi duen kontatuko du eta parte-hartzaileei Hego Sudango errealitatearen berri emango zaie. Planteatutako proben bidez, parte-hartzaileek mundu justuago bat ezagutu, hausnartu, entzun, inplikatu eta kolaboratu ahal izango dute.

Irakasleak jakinarazten du...

«Yuba Hego Sudango, Afrikako herrialde bateko, hiriburua dela. Baina Yuba bizkarrean gauza mordoa garraiatzen duen asto baten izena ere bada. Ura, elikagaiak eta ipuinak edo liburuak garraiatzen ditu Hego Sudango herrixka batetik bestera...».

Irakasleak bost kideko lantaldeak osatuko ditu ginkana egiteko, eta Hego Sudango argazkiak erakutsiko dizkie taldeei.

- **1. proba.** Talde bakoitzak hamar esaldi jasoko ditu eta guztien artean erabaki behar dute esaldia Hego Sudango kapitela den «Yubari» buruzkoa edo ipuinak eta liburuak garraiatzen dituen «Yuba» asto-zamaketaari buruzkoa den.
 1. Yubaren ametsa neska-mutilak osasuntsu bizitzea da.
 2. Lagun askok ihes egin dute Yubatik babesteko.
 3. Gerrak heriotza eta malko asko utzi ditu Yuban.
 4. Yuba gose da, ura eta elikagaiak behar ditu.
 5. Yuba, indarkeriaz, ustelkeriaz, gosetez eta bortxaketez suntsitutako tokia.
 6. Beldur eta izu handia dago Yuban eta, oro har, herrialdean.
 7. Yubak kilometro asko egiten ditu egunean ura eta elikagaiak garraiatzeko.
 8. Yuban tenperatura altua da urte osoan zehar.
 9. Nilo ibaia igarotzen da Yubatik, baina gerrak ibaiko portua txiki-txiki egin zuen.
 10. Yubak liburuak eta ipuinak ere garraiatzen ditu, neska-mutilek aukera berriak izan ditzaten.
- **2. proba.** «Yubak» erabaki handi bat hartu du: irakurle solidarioak egin nahi ditu. Uste du irakurtzea oso garrantzitsua dela arrazoi ugariengatik. Proba hau gainditzeko, taldekide bakoitzak irakurtzea garrantzitsua zergatik den pentsatu behar du, apuntatu eta irakasleari emango dio horma-irudian jartzeko «Irakurtzeko arrazoiak» izenburuaren azpian.

- **3. proba.** Irakurle solidarioak egiteko... jakin behar da zer den «adiskidetasuna, eskuzabaltasuna eta konfiantza». Taldekide bakoitzak osagai bat gehitu behar du «adiskidetasunaren, eskuzabaltasunaren eta konfiantzaren errezeta-liburu on bat» egiteko. Irakasleak liburu bat egingo du hiru horiekin eta taldekide bakoitzak osagai bat aurkitu eta bidezko irizten dion kopuru bat jarri behar du (apur bat, 3 koilarakada, litro erdi...), adibidez: adiskidetasunerako litro bat irribarre +... eskuzabaltasunerako entzute apur bat+... konfiantzarako edalontzikada bat besarkada +...
- **4. proba.** Talde bakoitzak «irakurle solidarioen kluba» jarri behar du martxan. Irakurle solidarioak izan nahi dutenak aurkitu behar dituzte, baina irakurle solidarioa izateko hiru galderari erantzun behar diete:
 1. Irakurtzea garrantzitsua egiten duen arrazoi bat.
 2. Adiskidetasunaren, eskuzabaltasunaren eta konfiantzaren errezetarako osagai bat.
 3. Gomendatu gustatu zaizun liburu bat.

Partaide bakoitzak paper batean idatziko ditu erantzunak eta «irakurle solidarioak» txartelean gehituko du irakurlearen izena.

- **5. proba.** Irakurle solidario bakoitzaren «orri-markatzailea» apaintzea datza garrantzitsu iritzitako «osagaiekin» eta ekarpen ekonomikoengatik trukatu dituzte haurren eskubideak defendatzeko Save the Children programak babesteko.


Prestatu

Hego Sudango argazkiak, hamar esaldiak talde bakoitzarentzat, boligrafoak, kartoi-meheak, errotuladoreak, osatzeko errezeta-liburu bat, papera «irakurle solidarioak» txartelak eta Save the Children-en «orri-markatzaile solidarioak».

KONTUAN IZAN

Probak egiteko denbora desberdina izan daiteke taldearen adinaren eta euren ezaugarrien arabera.

Interesgarria da ginkana egin bitartean Hego Sudango argazkien erakusketa.



«IRAKURTZEAK LIBRE EGITEN GAITU»



PROPOSAMENA

Egin proben ginkana bat. Talde-lana hastean, irakasleak testu bat partekatuko du Hego Sudango eta errefuxiatu-eremuen errealitateari buruz jakinaraztea. Probaren bidez entzumen aktiboarekin, hausnarketarekin, etsitako errealitate batekin, literaturarekin eta lankidetzarekin harremanetan jarri nahi da, mundu justuagoa eta duinagoa lortzeko.

Irakasleak informazio hau irakurriko du eta taldeei banatuko die:

«Bi milioi eta erdi hegotsudandarrek beren etxeetatik eta herrietatik ihes egitea erabaki dute. Emakume askok azaltzen dute haurtxo txikiak saski batean eraman zutela buru gainean, beste seme-alaba zapi batean bildu eta bizkarrean jarri eta bizitza salbatzera egin zutela ihes. Gerra, indarkeria, gatazka, bortxaketak, eskasia, bahiketak, gosea, heriotza, segurtasun eza, ustelkeria, botere gosea... Norabait ihes egiteko arrazoi dira guzti horiek, batzuetan pertsonak desplazatuak eremuetan daude pilatuta eta inguruko herrialdeetako errefuxiatu-eremu batera joaten dira, Ugandara, Etiopiara, Sudanera, Kenyara, Kongoko Errepublika Demokratikora eta Afrika Erdiko Errepublikara. Hego Sudango desplazamenduak "Afrikako errefuxiatu-krisi handiena" bihurtu dira. GKEek Hego Sudango Giza Eskubideen urraketez ohartarazten dute. Krisi humanitario honek guztion arreta behar du, finantzazio-falta gainditu behar da, ur edangarriaren, elikagaien, osasun-zerbitzuen, saneamenduaren eta hezkuntzaren hornikuntzari egiten baitio».

«Yuba da Hego Sudango kapitela, baina animalia-pertsonaia bat ere bada, Liburuaren Egunean hainbat ginkanetan lagun izan dugun astoa. Yuba Afrika Ekialdeko herrialde honetan bizi da eta gauza asko garraiatzen ditu, besteak beste, bizkarrean, ura, elikagaiak eta liburu eta ipuinak garraiatzen ditu. Hego Sudango errefuxiatu-eremura joateko asmoa du...».

Irakasleak bost kideko lantaldeak osatuko ditu eta Hego Sudango argazkiak erakutsiko dizkie taldeei.

1. proba. Talde bakoitzak hausnartu eta koloretako kartoi-mehe txiki batean idatziko du: liburuek eta ipuinek errefuxiatu-eremu batean Hego Sudango hurrekin duten lanarekin.

2. proba. Talde bakoitzak lasaitasunez hausnartuko du nola uste duzu bizitzen dela errefuxiatu-eremu batean? galderaren hiru ezaugarri. Eta beste kartoi-mehe txiki batean islatzen du.

3. proba. Taldea liburutegi batera joango da, eskolakoa, herrikoa, probintziakoa... eta irakurtzeko bi liburu aukeratzeko antolatuko dira, izenburua edo egilea koloretako kartoi-mehe txiki batean idatziko dituzten eta zergatik aukeratu duten azalduko dute:

«Yubak» bere aneketan eramateko eta errefuxiatu-eremuko neska-mutilekin partekatzeko liburu edo ipuin bat.

Hego Sudango agintariek eta mundukoek irakurtzeko beste liburu bat.

4. proba. Taldeak indarkeriari, eskubide-faltari eta pertsonen duintasunari amaiera jar diezaieken 5 hitz aukeratuko ditu. Hitz horiekin bost orri-markatzaileak apainduko ditu parte-hartzaile bakoitzak.

5. proba. Taldekide bakoitzak bost irakurle topatuko ditu, «irakurle solidario» gisa apuntatuko ditu txartelean eta «orri-markatzaile solidarioak» trukatuco ditu eta ekarpen ekonomiko baten truke salduko ditu Save the Children-ek Hego Sudanen egiten ari den ekintza humanitarioa babesteko.

6. proba. Gelako talde guztiek horma-irudi bat egin dute egindako proben erantzunekin eta «Irakurtzeak libre egiten gaitu» lema eramango dute.



PRESTATU

Hego Sudango argazkiak, taldeetan banatzeko koloreetako kartoi-meheak (talde bakoitzak kolore bat aukeratuko du eta probak egingo ditu), boligrafoak, errotuladoreak, paper jarraitua horma-irudirako, kola, «irakurle solidarioak» txartela eta Save the Children-en «Orri-markatzaile solidarioak».

KONTUAN IZAN

Probak egiteko denbora desberdina izan daiteke taldearen adinaren eta euren ezaugarrien arabera.

Interesgarria da ginkana egin bitartean Hego Sudango argazkien erakusketa. Irakasleak hasieran irakurtzeko informazioa banatu egin dezake taldeen artean.





«BATERAKO IRAKURKETA PARTEKATZEN DUGU»

PROPOSAMENA

egin batera pasatzeko egun bat irakurketa hezkuntza-komunitate osoan partekatze (ikasleak, irakasleak eta familiak) eta une komun bat eraiki daiteke irakurzaletasuna partekatze.

JARDUERA EGITEA

- Aurkezpena testuinguruan jarritz hasiko gara Nelson Mandela Bakearen Sariaren idazlan batekin:

«Ez nuke nahi ipuin-kontatzailearen ahotsa inoiz isiltzerik Afrikan, haur guztiak harritu daitezela liburuekin eta ez dezatela inoiz galdu mundua ikusi ahal izateko kontakizunen magiarekin».

- Partekatze testuen hautaketan garrantzitsua da «irakurle solidarioen» helburua kontuan hartzea: mundu justuago baten alde lan egiteko, non Giza eskubideen eta haurren eskubideen duintasuna errealitate bat den.
- Gela bakoitzak lan bat egingo du gelan kontakizun labur bat hautatu eta gainerako gelean partekatze.
- Partekatze kontakizun laburrak 100 hitz baino gutxiago izango ditu eta irakurketaren amaieran idazlea eta liburua zein diren adieraziko da.

PRESTATU

Guztiak hartuko dituen gela bat, Hego Sudani buruzko argazkiekin eta ginkanetan egindako lanekin osatutako erakusketa bat.

KONTUAN IZAN

Irakasle bakoitzak lan- eta kontsentsu-prozesu bat ezarriko du partekatze kontakizun laburra aukeratzeko eta aukeratutako testua nola aurkeztuko den definituko du.

Guztira pertsona ugari badira, jarduera zikloka edo ikasturteka ere egin daiteke.

Egun horretan erakusketak antola daitezke Hego Sudango argazkiekin eta literatura-ginkanetan egindako lanekin.





**Jardueran bildutako dirua sar
dezakezuen kontu korronte:
Banco Santander
ES24 0049 1837 58 2910248925**

Gogoratu kontzeptuan ikastetxearen izena jartzea. Horrela, diploma bat bidaliko dizuegu hezkuntza-komunitate osoari jakinarazi ahal izateko.

Dirua sartzeari buruz edo beste edozein gairi buruzko zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan **91 513 05 00** telefono-zenbakian.

Eskerrik asko zuen parte-hartzeagatik.

Eskolako hurrei Afrikako herrialde txirotuetako neska-mutilen egoera gerturatzen dien hezkuntza-proposamena da **Solidaritatearen Aldeko Orri-Markatzaileak**, Save the Children erakundeak abian dituen haurrak bizirik irauteko proiektuetarako funtsak lortzeko eta haurren eskubideak ezagutzeko, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez.

Laguntzaileak:



Bizirautea.
Ikastea.
Babestuta egotea.



Save the Children